ASTEKARIA | 2013ko ekainaren 14an | XVII. urtea | USURBIL | 535. zenbakia | www.noaua.com | TOKIKOM

# noaua



Aitzaga ere, auzi bidean

Segida izango du Tipi-Tapa ekimenak

Asteburu honetan hasiko dira San Juan jaiak

## Xabier Miguel Ezkerra

# “Iheslarien problema konpontzeko, iheslariekin hitz egin behar da”


Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala
orain ere noaua.com web orrian
http://www.
Etxebizitzak, garajeak, motorra,
lanpostuak, trukean...
Zure oharra Internet bidez igo
eta kontsulta dezakezu
www.noaua.com
MERKATU TXIKIA
noaua


bulegorako altzariak
eta hornidura
paper dendarako
artikuluak
Ugaldea Industrialdea, 11
Tfno.: 943 365 892
Faxa: 943 371 686
20170 USURBIL (Gipuzkoa)
manpel@manpel.com
www.manpel.com
MANPEL


aek
• IKASTARO TRINKOAK
• (uztaila-irailean 100 orduko ikastaroak)
• MAILA GUZTIETAKO IKASTAROAK
• 1, 2 eta 3. (E.G.A) mailako azterketa prestaketak
ETUMETA AEK
usurbil
Kale Nagusia, 45 behea.
20170 USURBIL
607 609 379 usurbil@aek.org www.muntteri.blogspot.com.es

## Albistea iruditan

# Errausketa “behingoz” alboratzeko deia

Larunbat arratsaldeko 17:30etan, Donostiako Bulebarrean. Hauxe, errausketaren aurka ekainaren 15 honetarako deitu duten manifestazioaren hitzordua. Zubietako erraustek planta egitasmoa behin betiko bertan behera uztea eskatuko dute, Errausketaren Aurkako Herri Plataformen Koordinakundea, Eguzki, Ekologistak Martxan, Greenpeace, CCOO, ESK, STEE-EILAS, Ezker Anitza, Ezker Batua, Erabaki, Gorripideak eta Sortu deitzaile dituen mobilizazio honetan. “Orain, inoiz baino gehiago, ahaleginak egin behar ditugu Gipuzkoa osoa Zero Zabor Lurraldea izan dadin hartu beharreko neurriak har daitezen”, adierazi zuten antolatzaileek, manifestazioa aurkezteko deitu zuten prentsaurrekoan.




Larunbat honetarako manifestazioa deitu dute Bulebarrean.

**Mundumob-eko antolatzaileen eskertza**

Antolatzaileek eskerrak helarazi nahi dizkiete, “Eman hartu nahi duzun mundua!” lemapean buruturiko ekintza hau posible egin duten guztiei.

“Mundumob ekimenean egindako aldarrikapena zabaltzen segi behar dugu gaurtik aurrera ere. Guztion artean, herritarrak ardatz hartuta, iraunkortasunean oinarrituko den mundua eraikitzeko erronka daukagu. Badakigu posible dela. Zergatik ez saiatu?”, diote Gipuzkoa Zero Zabor mugimendutik. Larunbateko ekitaldiko irudiak, gipuzkoazz.com web orrialdean daude.

## Laburrean

### Afari beganoa gaztetxean

Usurbilgo Gaztetxeak antolatu du ekainaren 13rako, 20:30etan gaztetxean bertan. “Afariko osagaiak herriko azokan zein dendetan erosiko ditugu eta zorionez ez dute animalietatik eratorritako ezer edukiko. Hau dena borondatearen truke dastatu ahal izango da”. Afalostean More More neska taldea arituko da.

### Diru-laguntza deialdiak

Ikasturtean zehar, aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa egin duten usurbildarrek udal dirulaguntzak eskatzeko aukera izango dute, ekainaren 17tik 28ra (bi egunok barne). Matrikularen %50 ordaintzeko adinakoak izango dira diru laguntza hauek. Eskaera orriak udal erregistroan eskuratu daitezke.

### Udajolaseko bilera

Uztailean Usurbilgo Udajolasen izena eman duten haurren gurasoei zuzendua dago deialdi hau. Bilera ekainaren 13 honetan izango da, arratsaldeko 17:00etatik aurrera Udarregi Ikastolan. Bestetik, Aginagan uztailean egingo diren udako txokoetan izen ematea ostiralean amaituko da (637 332 402).

noaua
Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Ana Aizpurua.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Bea Alda, publizitatea@noaua.com.
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Aizpea Aizpurua.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala
AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Euskal presoak
Euskal Herrira!
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

noaua 2013ko ekainaren 14an



**Aritz Gorriti**

# Erdibidetik... nora?

Zikina, garestia, intimitatearen aurkakoa.... Usurbilen jada iraganeko kontzeptuak diren hauek, pil-pilean, beste zenbait udalerrietako herritarren ahotan jarraitzen dute. Eta baita balkoietan ere. "Zaborren turismoa" egin nahi duenak, monumentu "ekologiko" ikusgarriak topa ditzake egun zenbait lekutan. Ongi etorria ematen duten seinaleak pasa eta balkoietatik zintzilik, galtzontzilo edo igande eguerditan poteatzera ateratzeko janzten diren galtzen ondoan. Hortxe, ponpox askoak, kalean dabilen inoren buru gainera eror ez daitezen, ondo helduta.

Zabor poltsetan, nahastuan pilatzen den ahaleginari esker, %30aren bueltan zebilen iaz (kasu batzuetan ehuneko honen azpitik), atez atekoa martxan ez duten udalerrietako gaikako bilketa tasa. Joan den asteko Ingurumenaren Nazioarteko Egunean, Foru Aldundiak kaleratu zituen datuak dira. Usurbildarrak datuok hirukoiztera heldu ziren, 2009tik martxan den bilketa sistemari esker. Hondakinen %90 birziklatu baitzen udalerri honetan. Eta ehuneko honen bueltan dabiltza beste herri atez ate zaleak ere.

Horiek emaitzak, zenbakiak, eta ez iritziak. Europatik errausketa debekatzen, zero zabor bidea txalotzen. Hiru urte barrurako, 2016rako Aldunditik hondakinen %60a birziklatu beharko dela esanez. Eta momentuz, atez atekoak ematen dituen pareko emaitzarik ez beste alternatibetan. Atez ate bai, atez ate ez eztabaidatzen ari dira zenbait udalerrietan. Eguzkia behingoz aterako dela iragarri duten arren, bere faltarik ez dute sumatzen zenbait lekutan, kalean bero baita jada. Baina oraindik, urteak pasa ahala, argitu ezin dudan zalantza bat. Birziklatzea ahalik eta gehien sustatu nahi bada benetan. Emaitza onena ematen duen eredu bakarra baldin badago. Kolorerik ez duten hondakinen arazoa bideratzeko, zergatik lehenetsi edo bultzatu "tarteko" bide bat, zergatik geratu erdibidean, konponbide eraginkorrena eskura dagoenean?

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi

## Komikia

roger.minguell@gmail.com



# Aitzaga Elkartearen aurkako epaiketa salatzeko, agerraldia deitu dute ostegun honetarako

Ezker Abertzaleko 40 kide epaituko dituzte, urriaren 17tik aurrera Madrilgo Auzitegi Nazionalean, Batasunaren aurka abiatuko den makroepaiketan. Kide hauei guztiei ETAri loturiko proiektu politiko batean parte hartzea egozten diete. 35/02 zenbakidun sumario honen barruan dira baita, 75 herriko taberna ere. Arduradun zibil moduan epaituko dituzte. Tartean, Usurbilgo Aitzaga Elkartea, azaroaren 26an, goizeko 10:00etan, Auzitegi Nazionalak San Fernando de Henaresen duen egoitzan.

Honen aurrean, Sortuk mobilizazioak deitu ditu ostegun honetarako, ekainaren 13rako, epaituak izango diren Ezker Abertzaleko kideen edota herriko tabernak kokatzen diren udalerrietan, "Konponbideari erasorik ez, utzi bakean Euskal Herria" lemapean. Usurbilgo Sortuk Aitzaga Elkarteari babesa adierazteko prentsaurrekoa deitu du ostegun honetarako, arratsaldeko 19:30etan. Aitzaga atarian burutuko da ekitaldia. Herritarrak hitzordu honetara gerturatzera deitzen ditu Usurbilgo Sortuk.

### 2002tik datorren prozedura

Lau hilabete barru abiatuko den epaiketaren prozedura ordea atzetik dator. Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epaileak abiatu zuen 2002ko abuztuan. Une hartan, hamaika lagun atxilotu eta 75 herriko tabernen kontu korronteak blokeatzea agindu zuen. Tartean, Usurbilgo Aitzaga Elkartekoa.

Baina elkarteak eta tabernak irekita jarraitu zuten, beste lau urtez. 2004an Aitzaga ireki zuteneko hamargarren urteurreneko jaialdia ere ospatu zuen, ordurako jada 120 bazkide zituen elkarteak. Baina halakoetan gertatu ohi den moduan, duela hamaika urte abiaturiko prozedura hark ondorio gehiago ekarri ditu denbora tarte honetan. 2006ko otsailaren 11n, Auzitegi Nazionaleko Fernando Grande-Marlaskaren aginduz, Guardia Zibilak Aitzaga elkartea eta taberna itxi zituen.

Aitzaga itxi bakarrik ez, deklarazioa hartzeko inputatu zituzten Aitzagako zenbait kide, "talde armatuko kolaboratzaile gisa". Ez zieten ezer leporatu baina Aitzaga bi urterako ixteko agindua eman zuten. Gertaerok jazo eta egun gutxira, Aitzagako kideek NOAUA!ri argi adierazi zioten, gerora, itxiera urteetan mantenduko zuten konpromisoa: "Bilgunea kendu digute. Baina elkarte bezala funtzionatzen jarraituko dugu". Hasiera batean, bi urterako ixteko agindua eman arren, Aitzaga sei urtez egon zen itxita azkenean. Aipatu moduan ordea, tarte horretan, egoitza itxita egon arren, hainbat ekimen antolatzen jarraitu zuten.



2006ko otsailean itxi arazi egin zuten Aitzaga. Ordukoa da argazkia.

**HERRI DINAMIKAN TXERTATUA**

***"Kultur eta kirol ekimen askoren sustatzaile izan da Aitzaga, 1994. urtean ireki zutenetik hona"***

Kultur eta kirol ekimen askoren sustatzaile izan baita Aitzaga, 1994. urtean ireki zutenetik: pilota txapelketak, azokak... Partaide izan da baita, herriko ekimen askotan. Eta beste talde batzuen azpiegitura lanak ere egin ditu Aitzagak. Herri mugimenduei baina bereziki herriko taldeentzat ateak irekiak izan ditu beti.

### Sei urtez itxita

Bi ez, aipatu moduan sei urte igaro behar izan ziren, Aitzaga berriz irekia ikusteko. Abertzale eta ezkertiarren bilgunea 2012ko otsailaren 2an inauguratu zuten bigarrenez, Auzitegi Nazionalak itxiera bertan behera uzten zuen autoa kaleratu ostean. Herritar ugari gerturatu zen inaugurazio ekitaldira, egun hartako elurrari eta hotzari aurre eginez.

Trikitixa eta bertso doinuek berotu zuten hitzordua. Adierazpenen artean, garai berriotan, Aitzaga bezalako egoitzek duten garrantzia nabarmendu zen. Eta segidan, Aitzaga irekitzera. Sarrerako kateak Jexux Mari Errekondok, Aitzagako bazkide sortzaileetako batek kendu zituen. Atea ireki, argiak piztu eta herritarrek, aspaldiko partez, barruko instalakuntzak zer egoeratan zeuden ikusteko aukera izan zuten. Uste baino egoera hobean zegoen egoitza, inaugurazio egunean ikusi ahal izan zenez. Elkartea eta egoitza bere onera ekartzeko, batzorde bat ere sortu zen. Egokitze lanak egin ostetik irekita daude Aitzaga elkartea eta taberna. Orain, azaroaren 26ko epaiketaren zain.

## Bizitza erdia, auzitegietako aginduen eraginpean

- **1990:** Elkartearen osaera.
- **1994:** Elkartearen eta tabernaren irekiera.
- **2002/4:** sumarioaren irekiera, Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epailearen aginduz. 11 lagun atxilotu eta gerora, 75 herriko tabernetako (Aitzagakoa tartean) kontu korronteak blokeatu zituzten.
- **2002/8/26:** Batasunaren ekintza oro bertan behera uzten zuen epaia kaleratu zuen Garzonek.
- **2004/6/20:** Aitzagaren 10. urteurren jaialdia.
- **2006/2/11:** Auzitegi Nazionalak elkartea eta taberna bi urtez ixteko agindu zuen.
- **2012/2/2:** sei urtez itxita egon ostean, itxiera agindua bertan behera utzi eta Aitzaga ireki zuten berriz.
- **2013/6/5:** Auzitegi Nazionalak Batasuna edo 35/02 zenbakidun sumarioari loturiko epaiketaren data jarri du.
- **2013/10/17:** epaiketaren hasiera, goizeko 10:00etan Madrilen.
- **2013/11/26:** Aitzaga Elkartea epaituko dute Madrilen.

# “Bermea ez da Estatuen borondatea izango,

## “Herria dugu arnas” ekitaldiaren berri eman digu Xabier Miguel Ezkerrak

Jarduera armatua behin betiko amaitu zuela iragarri zuen ETAk 2011ko urrian. Gauza batzuk aldatu dira geroztik. Baina gauza askok lehen bezalaxe jarraitzen dute. “Iheslarien problema ez bada konpontzen, hemen ez da irtenbiderik”. Ez da berria. Lehendik ere esan izan dute. “Iheslarien problema konpontzeko, iheslariekin hitz egin behar da”. Eta horretarako bideak ipini nahi ditu Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboak. Laster izendatuko dute ordezkari talde bat. Eta larunbat honetan, Miarritzen ospatuko den “Herria dugu arnas” ekitaldian, ibilbide orria plazaratuko dute. Xabier Miguel Ezkerrak urte asko egin ditu Usurbildik kanpo. Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboko kide da eta Miarritzeko ekitaldiaren berri eman digu telefonoz.



38 urte egin ditu herritik kanpo Xabier Miguel Ezkerrak.

**NOAUA! Arazoaren konponbidean eragiteko asmoa duzue iheslariok. Hala zenioten apirilean prentsan argitara eman zenuten idatzian. “Herria dugu arnas” ekitaldia ere, asmo horren baitan kokatzen al da?**

**Xabier Miguel Ezkerra.** Hori baino lehen, iheslariok –errefuxiatuak eta deportatuak– bi adierazpen egin ditugu Aieteko agerraldiaren ondoren. 2012ko urtarrilean egin genuen lehena, eta 2012ko azaro hasieran bigarrena. Adierazpen horiek prozesuaren baitan kokatu genituen.

Iheslarion problematika anitza dela genioen, barreiaturik gaudela mundu guztian, eta gure artean hausnarketa bat hasi genuela prozesuaren baitan daukagun eginbeharraz gure artean eztabaidatzeko. Horrek eman du eman duen denbora. Zeren presoena ez da erraza izango, baina gurea, are gutxiago. Behar den eztabaida martxan jartzeko, behar diren neurriak ere tamainakoak dira. Eta ez dugu bukatu, horretan gaude. Baina lehen erreflexio bat egin dugu amankomunean.

Esan izan dugun bezala, iheslari bat dagoen bitartean hemen ez da irtenbiderik izango. Iheslarien auzia konpondu beharra dago. Horretarako iheslariekin hitz egin behar da eta iheslariok esan beharko dugu zertaz hitz egin behar dugun.

> “Inork ez ditu egingo guk geuk egin behar ditugun lanak, eta eman behar ditugun pausoak”

**Kanpotik begira behintzat, Frantzia eta Espainiako gobernuen aldetik ez dirudi gauzak errazteko daudenik?**

Hain zuzen, egungo blokeoaren aurrean kokatzen da “Herria dugu arnas” ekimena. Zera esateko: inork ez dituela egingo, guk geuk egin behar ditugun lanak eta eman behar ditugun pausoak. Bermea ez dela Estatuen borondatea izango, baizik eta herriaren mobilizazioa. Hori da “Herria dugu arnas” ekimenaren asmoa, zentzu zabalenean.

Guk, ekainaren 15ean, ekarpen bat egingo dugu. Gure ibilbide orria plazaratuko dugu.

**Nolakoa izango da eguna?**

## Larunbatean Miarritzen, “Herria dugu arnas”

**“Herria dugu arnas”, hala du izena larunbateko ekitaldiak.**

Baina “Herria dugu arnas” ez da slogan bat. Ez egon iheslariaren zain. Iheslariek pauso horiek emango dituzte, baina herriak ere mobilizatu behar du. Azken presoa, azken iheslaria kalera atera arte. Ekainaren 15ekoa beraz, ez da zerbaiten bukaera izango. Hasiera baizik. Herriarengan jartzen dugu itxaropena, hau zerbaiten hasiera izan dadin. Ez da erraza izango.

**Herritarren esku dagoela konponbidearen oinarria, hori esan nahi duzue?**

Guk ahal duguna egingo dugu, baina egingo duguna egingo dugu, herriari zera esateko: hau denon artean pitzatu behar dugu, bestela jai daukagu. Laguntzak izango ditugu baina guk egiten ez badugu, kanpotik ez zaigu ezer etorriko.

Kanpoan ez dute problema bat ikusten, guk ikusten ez badugu. Guk ikusten badugu, eta nahikoa indarrez adierazten badugu, Estatuen blokeoaren aurrean laguntzaileak izango ditugu. Baina guk ez badugu hori bisualizatzen, kanpotik ez dute inbentatuko guk bisualizatzen ez duguna.

**Larunbateko ekitaldiari begira, usurbildarrei ere luzatuko diezu gonbitea.**

Usurbildar denei, etortzeko! Noski, ez dugu zerrenda bat egingo, zeintzuk ez diren etorri jakinarazteko, baina denak daude gonbidatuak. 800 lagunentzat bazkaria dago baina badugu ere paella, taloak, ogitartekoak... Eta dena jai-eremuan. Ez da jatetxerik inguruan, ezta kutxazain automatikorik ere!

**Beraz, diruarekin gerturatzeko, eta ondo pasatzeko gogoz.**

Hori da. Ekitaldi atipikoa izango da, ez da orain arte ezagutu dugun errefuxiatuaren egun baten modukoa izango. Beste maila batekoa izango da. Eta sorpresatxo batzuk ere egongo dira. Egun gozoa pasatzeko aukera izango dugu.

# baizik eta herriaren mobilizazioa”



(ARGAZKIPRESS, GARA)

Iheslari talde batek iaz egin zuen agerraldian. Erdian da Ezkerra.

> **“Ez badugu Estatuen blokeo hori, horma hori pitzatzen, jai daukagu”**

Bi atal bereizi behar dira. Goizean, eragile ezberdinekin bilkura egingo da. Kanpotik etortzen direnekin eta hemengo hautetsiekin (abertzaleak ez direnak, tartean) solasaldi pribatu modukoa izango dugu. Elkar trukaketa bat izango da, ondorioen inguruan.

11:30ean ekitaldi politikoa egingo da. Urteotan iheslariei babesa eman dion jendearen ekarpenekin ere. Herri bazkaria izango da gero, eta arratsaldean kontzertuak.

Egun osoko festa izango da, Miarritzeko eremu berri batean. Ipar Euskal Herrian dagoen eremu handiena (Irati erakustazoka).

**Garai berria abiatu zenetik hona, aldatu al da iheslarien egoera ala lehen bezain ilun daude gauzak?**

Lehen bezala jarraitzen du. Hemen ez da ezer aldatu. Baina hori orokorra da, ez da aldatu ez iheslariekin ezta presoekin. Diseinu berbera da eta guk hori barneratuta daukagu. Aspalditik gainera. Baina apostu estrategiko berria egin dugu, eta urtetako esperientziak bultzatu gaitu hausnarketa sakon bat egitera. Lizarra Garazin hasi zela esango nuke. Estatuen zain egon gabe, eman beharreko pausoak guk eman beharko ditugula eta hausnarketa horren ondoren konklusio batera iristen gara: konfrontazio armatutik konfrontazio demokratikora pasatzeko erabaki horrek ekarriko zituela zailtasun batzuk. Beraz, hori jakin bagenekien.

Gertatzen dena da Estatuen blokeoa latza dela. Hori begi bistakoa da. Gure soluzioa beren problema dela jakin badakigu. Denontzat ona izaten ahal zena, eurek ez dute horrela ikusten. Guretzat soluzio bat dena, eurentzat problema bat suposatzen du. Horren aurrean, guk ez badugu pitzatzen blokeo hori, horma hori, jai daukagu.

Guk bakarrik ezin dugu egin noski, eta herria gure bermea dela esatearekin bakarrik ez da nahikoa. Euskal gizartea mobilizatu behar dugu eta guk behintzat gure ekarpenak etengabe egingo ditugu bide horretan. Erregularizazioaren erabakia hartu dugu, prentsan agertu da, historikoki inoiz egin ez dugun zerbait egin dugu. Eman dugu pauso hori, munduan zehar eta Ipar Euskal Herrian ere bai, administrazio espainiarrarengana joanez paperak eskatzera. Beti ere, guk gure problemak konpontzeko garaian baliabide gehiago edukitzeko. Horrek ez du esan nahi dena konponduta dagoenik. Ezta gutxiagorik ere. Lehen bezala dagoelako egoera. Eta ekainaren 15eko ekimena hor kokatzen da azken batean.

## “Presarekin ez dugu fitsik egingo. Zeren ez da ona izango”

**Noiz ikusiko zaitugu Usurbilen? Hori aurreikusten al duzu epe laburrean?**

Nik aurreikusten dudana da kolektibo honen erabakien inguruan emango den urratsa, eta zentzu horretan, egin ahal ditudan ekarpenak egingo ditudala. Egingo dudana kolektibo horren onerako izango da, beste guztiok bezala. Gogorra den arren, behin batek zera esan zuen: “joan ginen baina ez itzultzeko eskubidea berreskuratzeko soilik, baizik eta inoiz beste bat etortzeko aukerak gainditzeko”.

Orduan, gogoa? Noski, ebidentea da. Nahia? Urtetan defentsa moduan erabili duzun hori, gauza horietaz gehiegi ez pentsatzea, ba orain adinarengatik, ba bai, egia da... Ilobak ere hor ditut, eta gutxinaka hasten zara hori bisualizatzen. Ingurukoek esaten didaten bezala, “38 urtetan inoiz ez zenuen horretaz hitz egiten eta orain hasi zara...”. Hala da, hori hor dago. Baina presarik ez dugu fitsik egingo. Zeren ez da ona izango.

**Herria asko aldatu da geroztik.**

Batzuetan satelitetik ikusten dut Usurbil, etxe berriak eta dena. Ilobak zuzentzen dit gero. Interneten jartzen gara kontaktuan, nik ezkerretik joan behar dela hara eta berak ezetz, eskubitik joaten dela horra...

### Ekainak 15 larunbata

**“Herria dugu arnas”**

**Miarritzen, Irati erakustazokan**

- 11:30ean ekitaldi politikoa.
- Egun osoan zehar, animazioa, txosnak, jatekoak (taloak, paella, ogitartekoak).
- 13:30ean herri bazkaria (20 euro, bertan), eta ondoren kantaldia.
- 19:00etan kontzertua, doan. Gatibu, Gose, Iheskide, Ze Esatek!

### Autobusa Usurbildik

Larunbatean Miarritzera joateko autobusa antolatu dute. Izen emateko zerrendak Aitzaga, Txiriboga, Irrati eta Bordatxo tabernetan jarriak egongo dira, ostegunera arte. Autobusa larunbat goizeko 10:00etan irtengo da, Bordatxo ondoko errotondatik.

# Pozik dira, eta Tipi-Taparekin jarraitzeko prest

Ekainaren 2an ospatu zen ikasturteko azken Tipi-Tapa. Gulekin eginiko pintxo goxo askoak prestatu zituzten, Txiriboga, Aitzaga, Bordatxo, Artzabal eta Txapeldun tabernek. Bi hileroko 300 euroko erosketa balearen zozketa ere egin zuten. Oraingoan, Aitzagan. Zenbaki saritua, 3330 izan zen. Duela bi asteko azken edizio jendetsuarekin, amaitu da denboraldi honetako Tipi-Tapa. Uztailean eta abuztuan ez da ibilbide gastronomikorik antolatuko. Udazkenetik aurrera ordea, tabernariek ekimenarekin jarraitu asmo dute. Abenduaz geroztik ospatu diren zazpi edizio hauetako balantzea eurentzat ezin hobea izan baita, NOAUA!k Tipi-Tapari buruz eginiko inkesta honetan parte hartu duten bost tabernetako langileek diotenez.




**Bertako saltokien produktuekin prestatu dituzte Tipi Tapako pintxoak.**

1- Zer moduzko esperientzia izan da tabernariontzat?
2- Zer harrera izan du bezeroen artean?
3- Zer aldatuko zenuke hurrengo ikasturterako? Edo dagoen bezala utziko zenuke?



**Arantxa Unanue**

**Txiriboga**

**1.** Oso ona. Jendeak hain ondo erantzutea ez genuen espero. Gehiago ezin eskatu. Jende gehiago ibili da Tipi Tapa egunetan. Eta gustura gu ere.

**2.** Bezeroek oso ondo erantzun dute, Tipi-Tapako igandea iristeko gogoz, zain sumatu ditugu; zer pintxo izango den, nola jarriko duen taberna batek eta besteak...Denetariko koadrilak, jende ezberdina etorri da; gazteak, helduak... Tipi-Tapa igande hori bizi dutenak.

**3.** Beti dago zer aldatu eta hobetua. Abenduan proba moduan hasi ginen. Azkenean zazpi edizio izan dira. Erantzuna hain ona izanda, irailean berriz hastea pentsatu dugu. Agian berrikuntzak izango dira, oraindik hori ikusteke dago.



**Aroa Bengoetxea**

**Artzabal**

**1.** Ona. Azkenean jendea mugitu egin da eta guretzat ere motibazioa izan da. Tipi-Tapa antolatzea positiboa izan da, saltsa sortu du.

**2.** Oro har bezeroak gustura daudelakoan nago, baina zozketa egin den bakoitzean jende gehiago mugitu da. Horrek ez dakit zerbait esan nahi duen edo ez. Gainerakoan, horrelako ekimenak antolatuta jendea gustura ikusten da. Azkenean jendeari halako zerbait eskaintzeak, gaur egun asko eskertzen du.

**3.** Dagoen bezala egoki ikusten dut. Azkenean jendea mugitzea lortu nahi genuen. Maiztasunari begira adibidez, hilero izan beharrean, Tipi-Tapa igandero antolatu balitz, interesa galduko luke. Hilabeteko lehen igandeetan eginda denok dakigu noiz den, eta denok dakigu pintxo eta trago bategatik zozketa batean parte hartzeko aukera dugula.



**Mikel Elexpe**

**Txapeldun**

**1.** Oso gustura gaude. Produktuarekin asmatu egin dugu. Tipi-Tapak poteo giroa indartu du, baita Kaxko erditik kanporago gauden tabernetan ere. Ohitura sortu dugu. Usurbilek behar zuen halako ekimen bat.

**2.** Bezeroek oso gustura hartu dute. Pintxoak era ezberdinetan prestatze horrek morbo pixka bat eman dio jendeari; taberna batera joan eta zer jarriko duten, bestera joan eta berdin... Ikusten da boston aldetik jarri dugula, prestakuntza polita egon da. Gogoz hartu dugu ekimena eta hori pintxo eta bezeroengana heldu dela uste dut.

**3.** Hain izan da lorpen ederra eta arrakastatsua. Azken Tipi-Tapan ere, eguraldi txarrarekin ez genekien asmatuko ote genuen, baina azkenean 250 pintxo baino gehiago zerbitzatu genituen. Beti dago zer hobetua, baina nik ez nuke ezer aldatuko, horrela jarraitu dezala urte askoan.



**Paulino Ibargoien**

**Bordatxo**

**1.** Zoragarria eta oso interesgarria izan da. Gai desberdinak prestatu ditugunez, joko bat egon da hor. Tipi-Taparekin asmatu dugu, eta gainera erantzun ona izan du. Balorazioa positiboa da.
**2.** Gustura egon da jendea, eta gogoz geratu da. Edizio hauetan, hor egon dira bezeroek eginiko pintxoen balorazioak. Egun batean, ez hain ona. Besteetan hobea. Hor zegoen ia batek nola prestatu, besteak nola egiten zuen... Polita izan da. Zozketa ere beste puntu garrantzitsua izan da bezeroentzat.
**3.** Tipi-tapan sortu dugun gauza polita, ibilbidea izan da. Aldatu beharrekoak ondo pentsatu behar dira, eta gauzak ondo egin. Zerbait egin beharko dela seguru. Orain, aldatzekotan onerako izan dadila.



**Fernando Oiarbide**

**Aitzaga**

**1.** Esperientzia ona, polita, positiboa izan da. Giro oso ona sortu da herrian. Tipi-Taparen barruan pintxoak berak funtzionatu du. Jendea pintxoa probatzeko gogoz etorri da, zalantza horrekin, ia taberna bakoitzak zer pintxo prestatuko zuen. Tipi-Taparekin irabazten atera gara.
**2.** Ondo egon da. Jendea hilabeteko lehen igandea heltzeko gogoz egon da, tabernetara pintxoak dastatzera joateko. Jendeari gustatu zaio, esperientzia polita izan da. Tipi-Tapa egunetarako zerbitzari gehiago kontratatu behar izan ditugu. Lan taldea indartu behar izan dugu igande horietan, besteetan baino jende gehiago ibili baita.
**3.** Ondo egon da. Ez nuke askorik aldatuko. Formula berri honek funtzionatu duela uste dut, jendeari gustatu zaio. Halere, hobetzeko, ideia berriak jasotzera irekiak gaude.

# Plis, Plas, Txalo ta Jolas, aurten Kiki, Koko eta Moko pailazoekin

1980. urteko abuztuan sortu zen Azkona taldea, Nafarroako izen bereko herrian. Dantza, musika, pedagogia, gorputz-mugimendua adierazbide eta giza-harremanetarako baliabidetzat hartuta, "kale giroko partaidetzako antzerkia" ildoa jorratzen zuten. Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo urtetan aritu ondoren, 1988. urtean "Munduko Zirkoa" pailazo ikuskizunean hartu zuten parte eta orduan abiatu zen Kiki, Koko eta Moko pailazo taldea. Datorren astean, Usurbilen arituko dira.

Berbena eta animazio kutsuko saioa eskainiko dute Usurbilen. Haurrentzat pentsatuta dago bereziki, "nahiz eta bere dinamika integratzaileari esker, urtebetetik 99 urtera bitarteko guztiek har dezaketen parte", pailazoek diotenez.

Ekainarekin batera amaitzen dira eskolak haurrentzat, eta ekainarekin batera iristen da Plis, Plas, Txalo Ta Jolas. Aurten, Kiki, Koko eta Moko pailazoak izango dira jaia girotuko dutenak. **Ekainaren 20an osteguna, 17:00etan frontoian**.



**Berbena eta animazio kutsuko ikuskizuna eskainiko dute ekainaren 20an.**

# Santuenean, “Dinbi danba” arituko dira Hipo eta Tomax



Mikel Sarriegi eta Joserra Fachado aktoreak dira Hipo eta Tomax. 2011n "Dinbi danba" ikuskizuna abiarazi zuten eta duela gutxi DVD euskarrian eman dute argitara. Saio arrakastatsu hori eskainiko dute **ekainaren 21ean ostirala Santueneko frontoian, 17:30etik aurrera.**

Zaldiak, geziak, arkuak... guztia prest dago indioen eta bakeroen arteko filma egiteko. Materiala inork uki ez dezan, platoa zaintzeko agindua eman diote Tomax aguazilari. Hipo, berriz, garbiketa lanak egiten ari da, berehala hasiko baita filmaketa."Umorea, dibertimendua, jolasak... ez dira faltako", dio Joserra Fachadok.

# Kurdistango ordezkaritza izan da Usurbilen, Udalbiltzak gonbidatuta



Aurreko astean egin zitzaien harrera Usurbilgo udaletxean.

UDALBILTZA ETA GABB

***"Biak, Estaturik gabeko nazioetako udal elkarteak gara"***

Antzekotasun handiko bi herrialdeetako kideak bildu ziren ekainaren 6an, Usurbilgo Udaleko udalbatza aretoan; batetik, Kurdistango Anatolia Hegoekialdeko Udalen Elkarteko ordezkariak, eta bestetik, Udalbiltzako lehendakari Mertxe Aizpurua eta Maite Iturre lehendakariordea.

GABB ("Union of Southeastern Anatolia Region of Municipalities") elkartearen izenean, idazkari nagusi Ahmet Ertak, koordinatzaile Zerin Turk, Senmdiliko alkate Sedat Tore eta Hakkariko alkate Fadil Bedirhanoglu izan ziren udaletxean. Turkiaren menpe dagoen Kurdistango elkartea dugu hau, 118 udal ordezkatzen ditu. Egunotan Euskal Herrian izan dira, hemen bizi dugun egoera bertatik bertara ezagutu asmoz. Pare bat egun lehenago, bilera informal bat burutu zuten GABB elkarteak eta Udalbiltzak. Iragan ostegunean, Euskal Herriko erakundeak harrera egin zien Kurdistango elkarteko kideei.

"GABB-eko kideok esan digute hartu-eman hau garrantzitsua dela eurentzat, aurrera begirako lankidetza posible baterako", diote Udalbiltzatik kaleratu duten prentsa oharrak. Udalbiltzak ere lehentasunen artean kokatzen du, munduko erakundeekin harremanok sustatzea. "Estaturik gabeko nazioetako prozesuak eta esperientziak oso garrantzitsutzat ditugu. Beraz, guretzat ere lehen urrats bat da gaur kurduekin izandako bilera hau", berri eman du Udalbiltzak.

## BI ERREALITATE, PARALELISMOZ JOSIAK

Bi erakundeek dituzten antzekotasunak ere nabarmendu dituzte. "Estaturik gabeko nazioetako udal elkarteak gara, norberaren nazioaren aldekoak. GABBk 1991n du sorburu urtea, baina 2005etik dago benetan martxan. Udalbiltza 1999an sortu zen, eta, 2001ean zatitu ostean, aurtengo martxotik berrantolatuta dugu", diote Udalbiltzatik.

Are gehiago, duela astebete elkartu ziren bi herrietako ordezkariak, estaturik gabeko nazioak dira, eta "biak ere estatu batzuetan zatituta daude: Kurdistan lau herrialdeetan (Turkia, Iran, Irak eta Sirian) eta Euskal Herria bitan (Espainian eta Frantzian). Turkiaren menpeko Kurdistanen 20 milioi lagun bizi dira".

## BIETAN, BAKE PROZESUA ABIAN

"Bai Kurdistanen, bai Euskal Herrian bake prozesu bat dago abian. Han PKK-k borroka armatua utzi duela iragarri du aurten, eta hemen ETAk gauza bera jakinarazi zuen 2011n. Bi nazioetan, baina, oraindik ere preso ugari da: Turkiaren menpeko Kurdistanen 10.000, eta euskal presoak 700 bat dira. Gainera, estatuen aldetik erakunde politiko eta sozialen aurkako erasoak jasotzen ditugu bi naziook".

Herri bakoitza zer bide jorratzen ari den ere aipatzen dute. "Kurduek Turkiaren baitan euren eskumenak izatea bilatzen dute, eta guk, Udalbiltza bezala, Euskal Herriaren artikulazio politikoa eta nazio eraikuntza ditugu helburu".

Euskal Herrian egon ostean, Herrialde Katalanetara zihoazen GABB elkarteko ordezkariak. Euren berri, web orrialde honetan jaso daiteke: www.gabb.gov.tr

Zuen publizitatea hemen
✆ 943 360 321
publizitatea@noaua.com






# 2013 San joanak

gehigarri berezia



# JOKOAK ETA BERTSOAK, JAIAK GIRO ONEAN HASTEKO

Larunbat arratsalde honetan entzungo diren lehen suziri hotsekin batera, Kalezar jai giroan murgilduko da. Inguruotako festen denboraldia estreinatuko dute ekainaren 15 honetan.

Lagun arteko saioa izan arren, txantxa gutxi izaten da auzotarren arteko jokoetan. Besteren artean, herri kirolen barruan sartzen diren hainbat proba jarri izan dizkie antolakuntzak aurreko urteetan. Jarduerok aurten errepikatzen badira, lokotsak biltzen, zaku lasterketan eta antzekoetan ziur, gogotik ahaleginduko dira. Hala izango dela frogatu nahi duenak, larunbat arratsaldeko 19:00etan auzoko festa gunean bihurtzen den plazara gertura dadila.

Baita lehen jai eguna borobiltzeko antolatu duten bertso saiora ere. Hiru aurpegi ezagun nor baino nor ariko dira, San Joanei doinua eta errima jartzen; **Amaia Agirre, Sebastian Lizaso** eta **Anjel Mari Peñagarikano**. Zeresana emango dute, larunbat afalostean ospatuko den ekitaldian.



## IGANDEKOA, UMEEN EGUNA

Igandean berriz, protagonismo osoa, haurrek bereganatuko dute. Txikiei zuzenduriko aparteko festa egunarentzat beti gorde ohi dute lekua auzoetako jai batzordeek. San Joanetako Umeen Eguna, aipatu moduan, ekainaren 16 honetan ospatuko da Kalezarren. Bazkaltzeko tartea baino ez dute izango, gainerakoan, egun osorako agenda bete hitzordu izango dute gaztetxoek. Eguna hasteko krosa eta denetariko jolasak. Arratsaldean, ekitaldi lasaixeagoak tailer eta txokolate janarekin. Bapo askaldu eta indarberritu ostean, berriz ere martxa gaztetxoentzat. Buruhandiak irtengo baitira eurak harrapatzera. Eta gero bai, haur, guraso, eta Kalezarrera igo edo auzora jaitsiko den herritar ororentzat dantzarako giroa jarriko du **DJ Burundak**.

## OILASKO BILTZAILE TXIKIEN BAZKARIKO TXARTELAK SALGAI

Haurren festa eguna igandean ospatuko da, baina gaztetxoek badute beste hitzordu bat; ekainaren 22an antolatu den oilasko biltzaile txikien irteera. Amaieran, bazkaritarako bilduko dira. Otordura joan asmo dutenek adi. Jai Batzordeak Umeen Egunean, igandean jarriko baititu txartelak eskuragarri.





# MUSIKA, ESKEA, SUA… ASTEBURU LUZEENEAN

San Joan suaren inguruan, badira bere errituak bete ohi dituztenak. Paper zati batean desioak idatzi eta sutara botatzea adibidez. Edo kontuz ibilita beti ere, suaren gainean saltoka ibiltzea. Eta bestela, suaren bueltan bildu eta kopla zaharrak abestu edo entzun daitezke. Aurten bezala. Bertsolari eta trikitilariek girotuko duten eskea ekainaren 23ko bazkalostean abiatuko da.

Goizaldera arte luzatuko dute kalejira. Geldialdiak egingo dituzte noski, eta horietako bat, azpimarratu beharrekoa, gaueko 22:00ak aldera Kalezarren bertan, urteroko errondaren baitan, sua piztuko den gunean egingo duten etena.

Biharamunean, San Joan egunez amaituko dira auzoko festak, jada, tarte finkoa duten hitzorduekin. **Gorritiren showa** iragarri baitute, sabela bapo betetzeko aukera sagardo eta sardin dastatzearekin, soka-dantza ere izango da…



## KONTZERTUAK, ABESBATZA…

Bigarrena, jaietako asteburu luzea izango da. Lehen jai egunak pasata, egun batzuetan indarberritu eta festetara itzuliko dira kalezartarrak berriz, hilaren 21ean. **Zumarteko Musika Eskolakoek** ikasturte amaieran eskaini ohi dituzten kontzertuen artean, azken emanaldiarekin. **Zumarte Gazte Abesbatza** entzuteko aukera izango da, auzoko ermitan. Musika kontuak alboratu gabe, hurrengo asteko ostiral eta larunbat gauetan, parranda giroa ziurtatuko dute bestalde, **Arto2xar, Berri Tzarrak, Luz de Putas, Gugaz** taldekoek edota **Dj Gudek**.

## EKAINAREN 22AN, OILASKO BILTZAILEEN EGUNA

Helduentzat gauak eta etxeko txikienentzat egun pasak. **Oilasko Biltzaileen Eguna** ospatuko baita ekainaren 22an. Aurten ordea, helduak ez, gaztetxoak bakarrik irtengo dira, oilasko biltzaile txikiak. Bazkaltzen geratuko dira plazan gero. Jai Batzordekoek, otordurako beharrezko mahai tresnak etxetik ekartzea eskatzen diete oilasko biltzera irtendakoei. Eta gaztetxoez hitz egiten jarraitu behar, bazkalostean, **Usurbilgo Dantza Taldekoen** emanaldia programatu baitute.

Musika, dantzari, oilasko biltzaile, San Joan sua eta beste hainbat ekitaldirekin, jai giroak ez du etenik izango datorren astean, Kalezarko jaietako asteburu luzeenean.



# JAI EGITARAUA

## Ekainak 15 larunbata

**18:00** Buruhandiak.
**19:00** Auzotarren arteko jokoak.
**22:30** Bertso saioa.
Sebastian Lizaso, Anjel Mari Peñagarikano eta Amaia Agirre bertsolarien eskutik.

## Ekainak 16 igandea

**Umeen Eguna**
**10:00** XI. Ume Krosa.
**11:30** Jolasak.
**16:30** Tailerrak.
**18:00** Txokolatada.
Ondoren, buruhandiak.
**19:00** DJ Burundarekin dantzaldia.

## Ekainak 21 ostirala

**16:00** Buruhandiak.
**17:00** Tortila patata lehiaketa.
**19:00** Zumarte Gazte Abesbatza ermitan.
**23:00** Arto2xar, Berri Tzarrak, Luz de Putas, Gugaz erromeria.

## Ekainak 22 larunbata

**Oilasko Biltzaileen Eguna**
**9:00** Oilasko Biltzaile Txikien irteera.
**14:00** Oilasko Biltzaileen bazkaria: norberak bere plater eta tresnak etxetik ekar ditzala.
**16:00** Musa: izen ematea, 16:30etan itxiko da.
**18:00** Herriko dantzariak.
**00:00** Dj Gude.

## Ekainak 23 igandea

**San Joan bezpera**
**15:00** San Joan eskearen irteera.
**22:00** San Joan sua.
Ondoren, eskearen jarraipena.

## Ekainak 24 astelehena

**San Joan eguna**
**11:30** Meza nagusia.
Ondoren, toka.
**13:00** "Gorritiren showa".
**17:00** Buruhandiak.
**19:00** Soka dantza. Ondoren, sardina eta sagardo dastatzea Saizar sagardotegiaren eskutik.

**Oharra:** Jai Batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen istripu edo ezbeharrez arduratuko.










AÑORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA
·komertzial instalazioak
·beira bikoitza ·segurtasun beirak
·dutxa-itxiturak eta irristailuak ·ispiluak
·barandak ·kristal mota guztiak...
943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA


LP
LARRAÑAGA
PLASTIKOAK E.A.
INDUSTRIARAKO
PIEZA MOLDAKUNTZA
Ugaldea industrialdea, 1. USURBIL
Telf: 943 36 14 46 / 943 37 33 05
Fax: 943 37 70 01
admon@larranagaplasticos.com


Josue
Igeltseritza
Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa
606 37 21 05
Ondo pasa
San joanetan!
Igeltseritza orokorra
Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL
josueigeltseritza@euskalnet.net


USURBILGO
HAUR ESKOLA
ondo pasa San Joanetan!
943 37 40 61


San juanak
2013ANDOAIN
21ean, ostirala
Hesian - Laket
22an, larunbata
The Sparteens - Skakeitan - Gora Herria
23an, igandea
Gozategi - Diskofesta Oihan Vega-rekin
24an, astelehena
Gozo-gozo - Ingo al deu
Egilea: Iban Buján Otero

# Hondakinen %35,2 birziklatu zen San Markon iaz, %33,4 Gipuzkoan

Foru Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Antolaketako Departamenduak 2012ko Gipuzkoako birziklatze datuak eman zituen ezagutzera, Ingurumenaren Nazioarteko Egunean, ekainaren 5ean. Herrialde osoan, hondakinen %33,4 birziklatu zen iaz. 2011n baino zertxobait gehixeago, orduan, %31,7 birziklatu baitzen. Aldunditik prentsa ohar bidez jakitera eman duten moduan, "aurreko urtearekin alderatuta, birziklapenak igoera txikia izan du. Urtebetean, puntu eta erdi pasatxo hobetu dugu tasa, beraz".


Iñaki Errazkin Ingurumen diputatuak eman zituen emaitza hauen berri.

Aipatu ehuneko hau, Usurbilgo datuetatik oso urrun dago. Udalerri honetan iaz, Gipuzkoako bataz bestekoa hirukoiztera, hondakinen %90 birziklatzera heldu baikinen. Foru Aldundiak herrialde mailako ehunekoa soilik ez, mankomunitateetako 2012ko birziklatze tasak ere argitara eman ditu. Hondakinen %30-37 artean birziklatu zuten 2012an, mankomunitate gehienek; gehien, Urola Kostan, %37,5. Gutxien, Debabarrenan, %22,7. San Markon berriz, %35,2. Mankomunitateka, hauexek dira iaz lortu zituzten birziklatze tasak:

### 2012KO DATUAK

-Debabarrena: %22,7.
-Txingudi: %29,9.
-Tolosaldea: %32,9.
-Urola Erdia: %32,9.
-San Marko: %35,2.
-Debagoiena: %35,9.
-Sasieta: %36,3.
-Urola Kosta: %37,5.

GIPUZKOA OSOAN: %33,4.

> IÑAKI ERRAZKIN
>
> ***Europako herri eta eskualde askotan %70eko edo %80ko birziklatze maila dute; gipuzkoarrok, aldiz, ez gara erdira ere iristen***

Datu hauen aurrean, Iñaki Errazkin ingurumen diputatuak argi adierazi du prentsa ohar bidez. "Hazkundea moteldu da eta asko dugu egiteko". Aditzera eman duenez, Europan, zonalde ugaritan, Gipuzkoako birziklatze tasak bikoiztu eta gehiago egiten dituzte. Bere esanetan, "Europako herri eta eskualde askotan %70eko edo %80ko birziklatze maila dute; gipuzkoarrok, aldiz, ez gara erdira ere iristen. Badugu aurrera egiteko oinarria, baina baita bide luzea egiteko ere".

Gipuzkoara bertara etorrita ere, atez ateko bilketa sistema martxan den herrietan, Usurbilen adibidez, are gehiago birziklatzen da; hondakinen %90 iaz. Esperientziok ere ahotan hartu ditu Errazkinek. "Gure lurraldean badira %70etik gora birziklatzen duten herriak, badira mota horretako konpromisoak hartzen ari direnak, beste batzuek Zero Zabor norabidea hartu dute, hainbat esparrutan –ikastetxeetan, Basque Culinary Centerren...- Zero Zabor programak egiten ari dira... Kontzientziazioa zabaldu da, birziklapenaren gizarteranzko bidea egiten ari gara. Baditugu, beraz, gaur egungo egoera nabarmen hobetzeko tresnak", azpimarratu du.

**%60, 2016rako erronka**

Erronka jarria dute Foru Aldunditik. 2016rako, hondakinen %60 birziklatzera heldu behar dugu Gipuzkoan. "Hori erabat egingarria da, baina helburua lortzeko, denok ahalegin txiki bat egin behar dugu: instituziook, alderdi politikoek, jendartearen eragileek, eragile ekonomikoek, herritarrek... Konpromisoa hartu eta koherentziaz garatu behar dugu", diote Aldunditik.

## Bidegorrien plana onartu dute Batzar Nagusiek

Aho batez onartu dute Batzar Nagusiek, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana. Planifikatutako oinarrizko foru sare honek, bederatzi bidegorri ibilbide jasotzen ditu. Tartean, Donostia-Mutriku artekoa. Horren baitan, Lasartetik Oriora bidean, Usurbiletik igaroko litzatekeen zatia ere jasotzen da. Txikierdi, Santuenea eta hortik aurrera, Orio lotuko litukeen tartea hain zuzen.

**SARE OSOAREN HEDADURA**

- 439,1 kilometroko sarea.
- Foru sareari dagozkionak: 288 km (102,4 km eginak daude, eta 186,4 km planifikatuta).
- Foru eta udal bidegorri sarea batuta, eginda dagoena: 176 km inguru (onartu berri den planean jasotako bidegorrien %38).

**INBERTSIOA**

- Guztira: 117,4 milioi euro.
- Lehen laurterako: 60 milioi euro.
- Bigarren laurterako: 57,4 milioi euro.
- Kilometro bakoitzeko kostua: 600.000 eurotik gora.

**FORU SAREETAKO ERABILERA**

- Bidaia kopurua: 3 milioitik gora.

**PLANAREN HELBURUAK**

- Foru bizikleta bideen sareari dagokionez, helburu nagusiak zehaztea.
- Bide horiek izan beharko dituzten ezaugarriak zehaztea.
- Aldi jakin batez, Planean adierazitako helburuak lortzearren, egin beharreko jarduera programak zehaztea.









# Ikastola Eguneko eskertza



**Ikastolaren Eguna antolatzen lagundu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkie Udarregi Ikastolak.**

Iragan igandean ospatu zen Ikastola Egunaren harira, eskerrak helarazi nahi dituzte Udarregitik. "Ikastolaren izenean lerro hauen bidez eskertu nahi dizkizuegu Ikastolaren Eguneko antolaketan nahiz festan izan duzuen parte hartzea eta eskainitako laguntza. Horiek aukera eman digute egun ederra elkarrekin pasatzeko eta ikastola benetan guztiona eta guztiontzat dela sentitzeko! Mila esker berriro ere eta jaso itzazue ikastolako kide guztien agurrik zintzoena eta eskerrik beroenak!", adierazi dute udarregi.com web orrialde bidez.

## GOIZEKO ZAINTZA

2013-14 urterako prestakizunak abian dituzte Udarregi Ikastolakoek. Tartean, irailetik aurrera, "Goizeko Zaintza" zerbitzua eskaini asmo dute Agerialden, goizeko 8:00etatik 9:00etara. Interesdunek, izen emateko epea irekita dute ekainaren 20ra arte. Apuntatzeko, ikastolako idazkaritzara jo behar da. Epea igarota taldea osatu bada, ez da ikasle gehiago onartuko. Zerbitzuaren kostua, erabiltzaile kopuruaren arabera zehaztuko da. Argibide gehiago, 943 361 216 telefono zenbakian.

## SOS AFRIKA

Afrikarako arropa eta oinetako bilketa kanpaina abiatu dute ikastolan. Bilketa, ekainaren 14ra arte egingo da, ikastolako erdiko aretoan. SOS Afrika Gobernuz Kanpoko Erakundeak antolaturiko ekimen honetan parte hartzera deitzen dute.

## IKAS LIBURUEN BILKETA

DBH 2, DBH 3 eta DBH4ko liburuak uzteko deia egin dute Udarregi Ikastolatik. Eki egitasmo berria dela eta, liburu asko desagertuko baita hurrengo ikasturtean. Ekainaren 21ean gelan bertan utzi daitezke liburuok, edo bestela ikastolara bertara eraman.

## "JANGELA IREKIA"

Ikasturtea amaituko duten egunean, ekainaren 21ean "Jangela Irekia" izeneko ekimena antolatu dute Udarregi Ikastolan. Helburua, "bazkaldarren familiei zerbitzuaren funtzionamendua erakustea, hurbiltzea eta zer bazkaltzen den erakustea da besteak beste. Bazkaldar bakoitzeko bi senitartekok etorri ahal izango dute bazkaltzera jangelara egun horretan, dohainik". Ekimenean parte hartzeko asmoa dutenek, aldez aurretik eman beharko dute izena Udarregi Ikastolako idazkaritzan.

## Erakusketa eta irakurgaiak, ekainaren 28an

Gay, lesbiana, bisexual eta transexualen harrotasun eguna izango da urtero moduan, ekainaren 28an. Hilabete honetako azken ostiralari begira, bi ekimen antolatu ditu Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneak. Batetik, "Bidean: ezkutukotik ikusgaitasunera 1977-2007" izeneko erakusketa jarri dute Oiardo Kiroldegian. Hilaren 30era arte bisitatu ahal izango da. Bertan, "Lesbiana feministen kolektiboak eta mugimendu feministak 1977az geroztik burutu duten lan politiko eta sozialaren alde bat jasotzen du, kartelak, aldizkariak, leloak...", berri eman dute antolatzaileek. Horrekin batera, liburu desberdinak irakurtzeko aukera eskainiko dute Sutegi liburutegian. "Sexualitate anitzak, anitzak hitzak" izenburupean, "armairutik ateratzen diren irakurketak eskainiko ditu ekainean zehar. Sexualitate gai ezberdinak jasotzen ditu bere baitan: queer teoria, transexualitatea, homosexualitatea, intersexualitatea...".

## Pilota partidak

**Ekainak 15 larunbata**
**11:00etan Usurbilen**
Azken laurdenak, Nagusiak
Loitegi-Gurutzealde (Urnieta)
Belloso-Agerre (Tolosa)

Santxo-Urruzola (Usurbil)
Jaunarena-Larraia (Leitza)

**Ekainak 16 igandea**
**11:30ean Usurbilen**
Azken laurdenak, Nagusiak
Diaz de Heredia-Kandela (Gasteiz)
Espinal-Medina (Doneztebe)












# Euripean izan bazen ere, gustura Lokiz mendilerroan



**Otzamendi gailurra egin zuten. 1255 metro ditu eta Lokiz mendilerroko altuena da.**

43 pertsona elkartu ziren igandeko mendi ibilaldia egiteko. "Goizeko 6:30ean abiatu gara autobusean sarturik euriak goitik behera goiz osoan zehar pakerik ez zigula emango esaten zigun bitartean", Andatzaren web orrian irakurri dugunez. Lehenik, Gasteiz aldera joan ziren, bertan hiru kide gehiago taldera batu ziren eta ondoren, ibilaldiaren abiapuntu zen Narkue herrirantz zuzendu ziren. "Goizeko 9:00ak jotzear zeudenean iritsi gara, eta denok ondo prestatu eta aterkiak zabaldu ondoren abiatu gara. Igoera, tamalez, ez da gozatzeko modukoa izan, denok izan baitugu nahiko lan aterkiak adarretan ez uzten eta lurrean hanka non jartzen genuen begiratzen. Euriak, haizeak eta behe lainoak ez digute utzi inguratzen gintuena lasaitasunez ikusten", aditzera eman dutenez. Narkueko mendi lepotik barrena igo eta Otzamendi gailurrera iritsi ziren. 1255m ditu eta Lokiz mendilerroko gailurrik altuena da.

Giro politean bazkaldu ondoren, arratseko 18:00ak inguruan berriro autobusa hartu zuten.

# Pilota Elkarteko saria irabazi du



Pilota Elkartean, urtero, errifa salmenta egin ohi dute. Maiatzaren 31ko ONCEren zozketa kontuan hartuz, aurtengo zenbaki saritua 3471 izan da eta asmatzailea: Mari Kruz Otermin. Hauxe da eskuratu duen saria: bi otordu Aginaga sagardotegian, eta beste bi otordu Saizar sagardotegian.

## Dantza eta gimnasia emanaldia, kiroldegian

Tximeleta, Usurbil Hip-Hop eta soinketa erritmikoko taldeek emanaldia eskainiko dute, ekainaren 18an, 17:15etatik aurrera Oiardo Kiroldegian. "Emanaldi honetan 4 urtetatik 21 urterainoko ikasleek parte hartuko dute koreografia eta soinketa erritmiko tresna desberdinekin. Lan gogorra egin ondoren, ilusio handiarekin ipiniko dira familia eta lagunen aurrean, haien lana gogoz defendatuz. Guztiei zorte on opa diegu eta garrantzitsuena, disfrutatzea eta ondo pasatzea. Guztiei emanaldi honetan gozatzera gonbidatzen zaituztegu", luzatu dute deialdia antolatzaileek.

## Usurbil Cup txapelketako finalak larunbatean

Aste hasieratik, Usurbil Cup txapelketako partidak jokatzen ari dira egunero. Azken fasean baita Usurbil FT-k antolaturiko ekimena. Ostiralera bitarte finalerdiak jokatuko dira, larunbatean finalak goiz eta arratsaldez. Azken partiden ostean, 20:15 aldera sariak banatuko dira eta gero, Zumetaren muralaren atzean, Mikel Laboa plazan jokalari taldeen argazkia aterako dute. Txapelketa amaitu aurretik, Usurbil FT-koen partez, "eskerrak eta zorionik beroenak parte hartu eta lagundu gaituzten guztioi. Bereziki, babesleei eta Usurbilgo Udalari, kirol instalakuntzen erabilera ahalbidetzearren". Hona hemen, Usurbil Cup txapelketako azken neurketen egutegia:

**Ekainak 12, asteazkena**
17:00 Minibenjaminak Haranen.
18:00 Infantilak Kiroldegian.

**Ekainak 13, osteguna**
16:30 Benjaminak Haranen.
18:00 Neskak (DBH 1,2) Kiroldegian.

**Ekainak 14, ostirala**
18:00 Alebinak Kiroldegian.

**Ekainak 15 larunbata**
10:00 Minibenjaminak Haranen.
16:00 Infantilak.
16:50 Neskak (DBH 1,2)
17:40 Benjaminak.
18:30 Alebinak.
19:20 Neskak (LH 4,5,6).
20:15 aldera, sari banaketa.
Ondoren, jokalarien taldeko argazkia Zumeta muralaren parean. Zenbait finalerdi eta finaletako partaideak nortzuk izango diren, egunotan jakingo da.

## ETXEBIZITZA

### Salgai

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzeko. Fatxada eta portala berritu berriak. 138.000 e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plazakoa. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpinean. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, + 60metroko trasteroarekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket… ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 200.000 (negoziagarriak). 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzen jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

### Alokairuan

Pisua alokairuan edo salgai Munalurran. 637 309 209.

Kaskoan pisu bat alokatzen dugu, Txaramunton. 4 gela, sala, bi komun eta sukaldea. Abala eskatzen da. Tlf. 688 675 856

Usurbilgo kaxkoan pisu eguzkitsua, 2 logela. Igogailuarekin eta berogailuarekin. 635 20 56 94.

Kaxkoan pisu eguzkitsua alokatzen da, 2 logela. Igogailuarekin,berogailuarekin. 635205694

Pisu bat alokatzen da kaskoan,3 logela,sala,sukalde, komuna. Dena kanporaldera, eguzkitsua.648868599

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna , ganbara eta igogailuarekin. 943371495-695767821-657711335

Gela bat alokatzen da dena berritua kaxkoan, gizaseme langile jubilatu bati. Etxe lasaia. Atzerritarrik ez. Tel. 687 348 223.

Logela bat alokairuan Zubietan. 350 euro. 655 744 039.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berritu batean. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratzea egiteko aukera. 665 720 913.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil 622 856 181.

## MOTORRA

### salmenta, garajeak

Kia Carnival 2.9 CRDI EX 5P 144 C. monobolumena (7 plaza) salgai. 6.500 euro, 80.500 Kms. 645737925 / 691785568

Garaje itxita salgai. 20 m karratuak. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Opel Zafira salgai, 1.7 81cv. 2010eko urrikoa.25.000 km. Oso egoera onean. 652759267

Seat Ibiza 1.4Tdi 80 zaldi. 58.500km. 2009 urte amaierakoa,5 ate, txuria. Jabe bakarra, ez erretzailea eta beti garajean.

Volkswagen Multivan 2.5 TDI 130cv salgai. 2006koa, 151.000 km, gris iluna. 650919065.

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrenea 10ean. Tel. 620 024 663.

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonei erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest nago.Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldez. Irakaskuntza gradua bukatzear eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goiz zein arratsaldez. Irakaskuntzan diplomatua. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu… Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Mutil katalan gazte euskaldun berri bat eskaintzen da, adinekoak zaintzeko edo katalanerako klaseak emateko. 677 290 212 (Roger).

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperiantziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2.mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)



**Zorionak!** Guretzako dena zaretelako hoberena opa dizuegu. Maite zaituztegu. Ama eta aita.



**Zorionak!** Gure egunik zoriontsuenean, ongi pasatzea opa dizugu. Muxu handi bat.



**Zorionak Eneko!** 17an 7 urte betetzen dituzu. Negu luze honekin bukatu eta udara eta jaietaz gozatzen hasiko gara. Muxu handi bat!

Ohar, zorion-agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaua.com

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsaldez, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko ostalaritzarako, interna moduan673445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsaldez edo zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

## Lan eskaintzak

Emakume euskaldun eta esperientziduna behar da Astigarragan, haur txiki bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Egun osoan, astelehenetik ostiralera. 943 550 550

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. Telefono zenbakia: 9433743 30

## BESTELAKOAK

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Frantseseko klaseak hartuko nituzke. 666 607 447

Erromeri talde baterako, tronpeta eta tronboi jole bila gabiltza uda honetako kontzertuetan hasteko. 660214740

Etxean egindako haur manta bat galdu dugu, koadroduna, morea, grisa, horia eta naranja kolorekoa. Aurkitzen baduzu: 626 368 019

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Usurbil eta inguruetan belardiak hartuko nituzke, belar ondua egiteko. 667406010.

Hiru metroko sofa salgai, "txeslorarekin". 400 euro (negoziagarriak). Berri berria. 653 711 574.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Karbonozko bizikleta erdi berria salgai. Prezio ona. Tel. 600 244 126

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Gazte usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

## TRUKEAN, OPARI

Ordenagailuak, bulegoetako eserlekuak, haur jokoak, liburuak, kirol materiala, ispiluak, lanparak, alfonbrak, sehaskak, maletak... Atalluko Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00-13:00.

# Telefono interesgarriak

| | |
|---|---|
| Udala | 943 371 951 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 |
| Haur Eskola | 943 374 061 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 |
| KZgunea | 943 023 684 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 |
| Etumeta AEK Euskaltegia | 607 609 379 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 |
| NOAUA! Kultur Elkartea | 943 360 321 |

| | |
|---|---|
| Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Taxia (Joxe Kruz) | 677 373 466 |
| Eusko Tren | 943 470 976 |
| LurraldeBus | 943 000 117 |
| Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Anbulategia | 943 362 013 |
| Oa botika | 943 376 076 |
| Iturralde botika | 943 363 395 |
| DYA | 943 464 622 |
| Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Emergentziak | 112 |
| Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Banco Popular Español | 943 370 411 |
| BBVA | 943 377 155 |
| Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Telefonica | 1004 |
| Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak *ekainak 13-ekainak 23*

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | 13 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo de Loyola 9 Lasarte |
| **Ostirala** | 14 | ORUE | Jaizkibel Plaza 2, Lasarte |
| **Larunbata** | 15 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etor. 6. Lasarte |
| **Igandea** | 16 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etor. 6. Lasarte |
| **Astelehena** | 17 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32 Lasarte |
| **Asteartea** | 18 | RODRIGUEZ | K. Nagusia 42 Lasarte |
| **Asteazkena** | 19 | GIL | Kale Nagusia 24 Lasarte |
| **Osteguna** | 20 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etor. 6. Lasarte |
| **Ostirala** | 21 | URBISTONDO | San Franzisko 1 Lasarte |
| **Larunbata** | 22 | URBISTONDO | San Franzisko 1 Lasarte |
| **Igandea** | 23 | URBISTONDO | San Franzisko 1 Lasarte |

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegikalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

LATAILLADE
ITURGINTZA
Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua
Aristitxo 8 , behea 943 363 348 - 609 888 021

JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

# Agenda ekaina

## 13 osteguna

- **Udajolas, guraso bilera** 17:00 Udarregin.
- **Zumarteko ikasleen ikasturte amaierako kontzertuak**. Udarregin, 18:00etan.
- **Aitzagari babesa adierazteko prentsaurrekoa** 19:30ean Aitzaga aurrean.

## 15 larunbata

- **San Juanak Kalezarren**

(ikus gehigarria).

## 16 igandea

- **San Juanak Kalezarren, Umeen Eguna**

(ikus gehigarria).

# Ikasturtea amaitzeko hainbat kontzertu iragarri ditu Zumartek

Ikasturte amaieran dira Zumarte Musika Eskolakoak. Udako oporretan murgildu aurretik, denboraldia borobiltzeko jendaurreko emanaldiak eskainiko dituzte egunotan:

**Ekainak 13, osteguna**
18:30 Musika Txokoko ikasleak, Udarregi Ikatolan.

**Ekainak 17, astelehena**
19:00 The Astelehen´s, Ganbarakada eta Gitarrako taldeak Sutegin.

**Ekainak 18, asteartea**
18:30 Zumarte Txiki eta Zumarte Abesbatzak, Tronpeta Taldeak, Txikien Txaranga-Triki Taldea, Triki-Pandero Taldea Sutegin.



**Ostegun honetan hasiko dira kontzertuak.**

**Ekainak 19, asteazkena**
18:30 Biolin Max-Mix 1-2-3 Taldeak, Folk Taldea, Talde Instrumentalak... Sutegin.

**Ekainak 21, ostirala**
19:00 Zumarte Gazte Abesbatza Kalezarreko ermitan.

## Bilera, Zubietako Herri Batzarrak deituta

"Legealdiaren erdialdea egin berri da, eta orain arte herri batzarrak egin eta aurrera eraman dituen ekintzen berri eman nahi dugu. Bestalde, hemendik aurrera egin nahi denaren berri eman eta herritarren nahiak, kezkak eta beharrak zeintzu diren entzun eta jakin nahi genituzke". Larunbata, goizeko 11.00etan Kaxkapen.

## Kantu Taldearen afari merienda

Astearteroko entsegu saioetan lantzen aritu diren kantugintza ikastaroa agurtzeko kantu afari merienda antolatu dute Kantu Taldekoek. Datorren asteartean, ekainaren 18an, 19:30etatik aurrera Artzabalen. Kantu zaleen hurrengo hitzordua, Santixabeletan ospatuko den kantu zikiro jana.

## Datozenak

### Ziortzako kanpaldia muntatzera

Ekainaren 22rako jarri dute hitzordua Peñaloscintosen (Errioxa), uztailerako Ziortzak antolaturiko kanpaldia muntatzeko. Laguntza eskaini nahi duten herritarrek, email bat idatzi behar dute, helbide honetara: ziortzage@gmail.com.



### Kiki, Koko eta Moko pailazoak Usurbilen

Ikasturte amaieran ospatu ohi da Plis, Plas, txalo ta Jolas ikuskizuna. Aurten, Kiki, Koko eta Moko pailazoak izango dira protagonistak. Ekainaren 20an osteguna, arratsaldeko 17:00etan frontoian.

### Hipo eta Tomax, Santuenean

Ikasleek ikasturtea amaituko duten egun berean, ekainak 21, pailazoen emanaldia antolatu du Santuenea Elkarteak auzoko frontoian. 17:30etatik aurrera, Hipo eta Tomax pailazoak izango dira bertan, "Dinbi Danba" ikuskizunarekin.






PLIS PLAS TXALO ETA JOLAS
Kiki, koko eta Moko
pailazoak
Ekainak 20, osteguna
17:00h frontoian
noaua

# Edertu zaitez!
















